



Olabe Larrinaga

etxebizitza

Aldacerak: Larrinaga
Ahozkoa: Larréña / Larríña

*“... la casería de Olabe-larri-
naga... situada en la Cofradía
de Ocano de la Anteiglesia de
Berriz que es de una vivienda,
ocupa una planta solar de
ciento diez estados cuadrados
equivalentes a cuatro áreas y
diez y nueve centiáreas... en la
planta van incluidos el horno y
el zaguan...”
DJE 3/134 or. (1877)*



43° 10' 34"

2° 33' 57"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza bakarrek baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentala 1653koa da: *Olabe Larrinaga* (BAHP, A750/32. or.). Bertan, Okango kofrariaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izena. XVIII. mendean zehar beti *Olabe Larrinaga* (BAHP, A45/1. or.) aurkitzen dugu, eta Bizkaiko su-erroldean ere horrela agertzen zaigu. Alabaina, XIX. mendetik aurrera, forma horrekin batera *Larrinaga* forma ere agertzen da, hala nola 1825eko polizia-errolaren kasuan. XX. mendean, eta batez ere udal-agerietan, *Larrinaga* (1967, BUA, CE) erabili izan da.

Gaur egun, guztiz itxuraldatutako baserria da. Behealde zeharo itsututa badu ere, oraindik antzeman daiteke berezko egitura, nahikoa elementu kontserbatzen dituelako hurbilpen bat egin ahal izateko. Sarritan ikusten ditugun hiru gorputzak honetan ere badaude, nahiz eta

erdialdekoa (ataratearena) iraganean zena baino txikiagoa den, zutikoaren eskumako aldea itxi egin dutelako.

Ezkerraldeko gorputza da sendoena, eta harlandu dauka kantaletan, baita atarteko egurrezko dintelari eusteko janban ere. Beste aldean, berriz, ez zegoen holakorik, goitik beherako tantaia zehazten zituztelako ertzak, Asua (**Ikus Asua**) baserrian moduan. Hormak, harlangaitz itxurosozkoak dira bi aldeetan. Erdialdean egurrezko egitura dauka, baita leihoak ere, eta tarteko hormak, aldiz, luzituta ditu eta margotutako harlangaitzez egindakoak. Frontala hutsik dago, baina bi isurkiko teilatuari eusten dioten gailurra eta habea bistan ditu. XVI. mende bukaerakotzat jotzen da baserria, baina hamarkada batzuk beranduagoko ezaugarriak ditu.

toponimia

Sarritan esan dugun legez Bizkaian oso arrunta da etxe izenetan lehenengo osagaia auzoaren izena izatea, hemen bezala (Olabe), eta bigarrena etxearena berarena, Larrinaga kasu honetan. Larrinaga deitura nahiko arrunta da eta osagaiak larrain “garia jotzeko lekua”, mendebaldean larrin moduan ezagutua, eta tokia adierazten duen -aga atzizkia dira.